

Euskal egunkariaren oinarriak

Euskaldunon Egunkaria, 1991-12-05.

Hemen arazo nagusia ez da egunkaria euskaraz argitaratzea, funtsezkoa hauxe bada ere, baizik eta euskarazko egunkaria ongi informatua, profesionala, orekatua, baterakoia eta nazionala eskaintzeko gauza izaten ahalegintzea.

Euskal Herria *Euskadi* euskalduna bilatzeko bide izango dena.

Euskaldunen artean iritzi ezberdinetako pertsonak bizi gara, zorionez; gure gizartea, ideologiaz eta erlijioz berdina garelako esatea, fabula bat kontatzea da. Nahiak errespetatu behar ditugu, noski; hau da egunkaria egiterakoan gure helburu nagusia: Euskadi ireki eta zabalaren zerbitzuan jartzea. Honek ez du esan nahi kutsurik gabeko egunkari geza eta motela izan behar duenik, zeren munduko eta herriko berriak sinesgarritasun osoz emateaz gain irizpideak ere kontutan hartuko ditu, eta iritziak denetarikoak daudenez, bakoitzak bere leihoko kristaletik begiratzeko eskubidea badu, noski; beti errespetuan, irainik eta deskalifikazioarik gabe. Ea gauza garen euskarak biltzen gaituen honetan elkarriketak firmoki, baina gainontzekoen finkotasuna gurearen ondoan agertzeko tolerantzia eta elkarrekiko errespetoa gordeaz.

Hasieratik planteiatu zitzaigun arazo nagusia: taldekerian erortzeko arriskua.

Partidukeria edo ideologiaren demagogian sortzen diren gurutzadako egunkariak ez dira gai egia eta informazioaren zuzentasuna defendatzeko; gehiengoak ez du informaziorako egunkari mota hau erosten, eta itxia den taldekeria batean laster itotzen da. Hala gertatzen da ezker-eskuineko Estatuetan sortutako egunkarien artean. Ongi nozitu ditugu berauek: Prensa del Movimiento delakoak sortutakoak; ezkerrekoetan beste hainbeste gertatu da. Arrisku hau gure kasuan handiagoa da oraindik, Estatu bat ez garelako, eta hizkuntza finkatu gabe eta hil zorian ere daukagulako, zeren gure herritarrek erdarazko egunkari libreak erosiko bait lituzteke. Hau esanda, argi geratzen da geure kasuan alderdiek bere politika motak egiten ari diren bitartean, behar dugula geure hizkuntza nazionalaren bidetik doan prentsa librea sortu, eta hau egiteko, egunkari herriko baten formula besterik ez da ageri.

Gurutzebide honetan lehen arazoa zera izan zen, sortzetik sinesgarritasuna.

Baina gure herriko beste arazoetan bezala, elkar sinestea zen zaila, eta Eusko Jaurlaritzatik beharrezko genituen laguntzak emateko gudan sinetsi egin behar zutela esan ziguten.

Eta apostu bat egin behar izan genuen.

Urtebete gero, erakutsi du EGUNKARIAK zerbait: etengabeko lanaren eta imajinarioaren bidetik lana eta izpiritua ere nahikoa jarri duela errespetoa merezi duen etekina sortzeko, eta ekonomia aldetik herriaren, hemengo taldeen eta zenbait industrialen bitartez euskalduntasunaren bidea lana tajuz egiteko. Ez dugu seguraski dena ongi asmatu, soslai batzu ere erakutsi ditugu ezinbestean, baina euskal *Egunkaria*

alderdi guztietara irekia egon da eta dago. Gauzak honela, urtebete honetan fede ona erakutsi dugula uste dugu, eta erantzukizunaren ardura ere bai.

Hemendik aurrerakoa errazagoa izango delakoan gara; alderdi guztietako jendearen laguntza beharrean gara hasitakoa gorabidean indartu eta zabaltzeko. Apostu honen bigarren pausoa eman nahi dugunean, ez ahal gara berriz babesik gabe geratuko. EGUNKARIAK, bere Kontseiluaren aginduz, eskaini genion Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari bere konfidantzako pertsonak parte har zezan, euskararen bideak ematen duen pluraltasunaren alde denok joka dezagun.

Geurok orain urtebete jarri genituen egunkariaren 'Oinarrizko ezaugarriak' dira gaur berrai patzen ditugunak: Aurrena, *euskaltzalea eta nazionala* izatea nahi genuen; *baterakoia*, eta denok hartzeko adina *zabal*; *independientea*, hau beharrezko du egunkari plural batek, beraz *ez instituzionala*; *euskararen militantzia* sentitu behar dugu, eta *profesionaltasunarekin batera, egunkari berri bat egin*.

Orain urtebete aurreproiektuan jarri genituen *zutabe hauek aurrean* ditugula saiatu gara orain arte, eta hemendik aurrera printzipio beretan hobeto finkatuta jarraitu du EUSKALDUNON EGUNKARIAK euskararen, herriaren eta pertsonen askatasun bidean.

Denon laguntza behar dugu, Euskarak ase gaintzan.